

## 2019KO IBILTARI SARIAN BILBO ADEITSU, BIZIGARRI ETA JASANGARRIAREN ORDEZKARIA HAUTATUKO DUTE

- Zortzigarren edizio honetako hautagaiak Jon Mugika eta Txema Soria kazetariak, Maribel Salas aktorea eta Alex Mumbrú eta Javi Salgado saskibaloj-jokalariak dira
- Saria 2019ko irailaren 16tik 22ra bitartean Bilbon egingo den Mugikortasunen Europako Astearen barruan emango da
- Sariduna herritarrek aukeratzen dute, bertoko hedabideetan antolatzen den bozketaren bidez; hedabideok ingurumenaren eta jasangarritasunaren arloko sentsibilizazio-ekimenetan laguntzen dute Bilbao sin mi Coche / Bilbao nire Kotxe barik web orrian

Bilboko Udalak Mugikortasunaren Europako Astea (Bilboko MEA 2018) antolatu du irailaren 16tik 22ra bitartean eta, horren harira, Bilboko Ibiltariaren Sariarako deialdia egin du zortzigarren urtez. Hona edizio honetako hautagaiak: Txema Soria eta Jon Mujika kazetariak, baterako nominazio batean; Maribel Salas aktorea, eta Alex Mumbrú eta Javi Salgado, Bilbao Basketeko saskibaloj-jokalariak, baterako nominazioan. Aurreko edizioetan legez, irabazlea erabakitzeko, ingurumenaren eta jasangarritasunaren arloko sentsibilizazio-ekimen honetan laguntzen duten tokiko hedabideetan egingo diren herri-bozketetako botoak eta Bilbao sin mi Coche / Bilbao nire Kotxe barik web orrian (<http://bilbaosinmicoche.net/index.php/es/>) jasotako botoak batuko dira.

Hautagaitzarik bozkatuena irailaren 22an, domeka, sarituko da, "Bilbao sin mi Coche / Bilbao nire Kotxe barik" egunean, hau da, MEAri amaiera ematen zaion egunean.


Ibiltariaren Sariak Bilbo atsegina, bizigarriagoa eta jasangarriagoa izaten laguntzen duten pertsonen lana eta balioak aitortzen ditu. Gainera, pasean ibiltzeko ohitura osasungarriari eta pertsonen arteko harremani balioa ematen die, osasuna sustatu eta hiria hobeto ezagutzen laguntzen duelako.



#SEMBilbao2019 | @SEM\_Bilbao

**MUGIKORTASUNAREN ASTE EUROARRA**  
**SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD**

16-22 IRAILA SEPTIEMBRE

 #mobilityweek



**MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN FERIA**  
**FERIA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE**

AREATZA 19-22 ARENA

*Oinez eta bizikletaz segurtasunez ibiltzea*  
*Camina y pedalea con seguridad*

## Txema Soria eta Jon Mujika

Zeinek bere hedabidetik, Txema Soria eta Jon Mujika kazetariak uriko bizitza sozial eta kulturalaren klabeak egunero erakusteko lana daukate. Haien kronikek ez dute indarrrik galdu urteotan, eta gizarte aktibo baten argazki zoli eta atsegina egiten jarraitzen dute, hemengo ideiak, ekimenak eta ospakizunak azalduz. Txema eta Jon, Jon eta Txema, ia beti presaka, gure hiriaren bizitzaren erdian egoten dira; hura begiratzeko eta transmititzeko dute. Horrela, beraiek ere pertsonaia bihurtu dira, eta Bilboko ekitaldi sozial gehienek erdian egoten dira.

## Maribel Salas

Maribel Salas, Barakaldon jaiotako aktore eta umorista, "Vaya Semanita" programan ezagutu genuen askok. Aurten estreinatu den "La pequeña Suiza" filmean berriro eragin digu barrea. Telebistaren munduan ETBko "Entre dos fuegos" saioan debutatu zuen, eta "Policías, en el corazón de la calle" eta "Hospital Central" saioetan agertu da. Haren azken lanen artean "Ciudad K", "Vaya tropa", "Que vida más triste" eta "LEX" telesaiok daude. Duela gutxi Bego interpretatu du Antena 3en "Allí abajo" saioan. Une honetan "Cómo hemos llegado a esto" antzezlanak du karteleran.

## Alex Mumbrú eta Javi Salgado


Alex Mumbrú eta Javi Salgado, izan duten ibilbideetatik -lehenengo jokalaririk gisa, eta gero entrenatzaile eta teknikaririk gisa (hurrenez hurren)-, dagoeneko pertsonaia historikoak dira, Bilbao Basketi behin betiko lotutakoak. Taldeko kirola oro har, eta bereziki saskibaloia, irmotasunaren, sakrifizio pertsonalaren, joko garbiaren eta lehiakortasun zintzoaren erakusgarriak dira. Balio horiek dira astero-astero Bilbao Basketeko jokalariek bilbotarrei helarazten dizkietenak; hainbat urte gogorren ostean, zaletuak gozaten hasia lortu dute. Alex bartzelonarra, hainbat taldetan saskibaloi-jokalaria izan dena eta bere karrera profesionalaren azken etapan Bilbori lotuta egon dena, 2018. urteaz geroztik klubeko entrenatzailea da. Javi Salgado bilbotarra, aurten bertan iragarri du jokalaririk gisa taldea utziko duela, profesional gisa 20 urte eman ondoren; harrezkero taldeko teknikaririk bat da.



#SEMBilbao2019 | @SEM\_Bilbao

**MUGIKORTASUNAREN ASTEEUROPARRA**  
**SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD**

16-22 IRAILA SEPTIEMBRE

 #mobilityweek



**MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN FERIA**

FERIA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE

AREATZA 19-22 ARENA

*Oinez eta bizikletaz segurtasunez ibiltzea*  
*Camina y pedalea con seguridad*

## Ibiltariaren sariaren palmaresa

Sariaren lehengo irabazlea, 2012an, Virginia Berasategi triatleta bilbotarra izan zen. 2013an, berriz, audientziak Bilboko Txikiteroak aukeratu zituen; 2014an, Bakuva gizarte laneko elkarte izan zen garailea eta 2015ean sariduna Gorabide Elkartea. 2016an Ibon Areso Bilboko alkate ohiari eman zitzaion eta 2017an emakume bilbotarrei, garraio publikoaren erabiltzaile nagusiak izateagatik. 2018ko edizioan, Fortunato Vencedor izan zen irabazlea, laurogeita hamar urteak beterik dituen maratoni-korrikalaria.

## Bilboko 2019ko Mugikortasunaren Europako Astean laguntzen duten hedabideak


2019ko Mugikortasunaren Europako Astearekin elkarlanean diharduten komunikabideetan egingo den bozketan eman ahal izango dute botoa bilbotarrek irailaren 11tik 20ra bitartean. Hau da, Deia, El Diario Norte eta El Mundo egunkarien eta La Ría del Ocio aldizkariaren webguneetan eta eitb.com helbidean, eta Telebilbao, Radio Nervión, Bizkaia Irratia, COPE, Onda Vasca, Onda Cero, Radio Bilbao eta Radio Popular irratietako programetan eta sare sozialetan. "Bilbao sin mi coche / Bilbao nire kotxe barik" ekimenaren web orriaren bidez ere eman daiteke botoa.



#SEMBilbao2019 | @SEM\_Bilbao

**MUGIKORTASUNAREN ASTE EUROPARRA**  
**SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD**

16-22 IRAILA SEPTIEMBRE

 #mobilityweek



**MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN FERIA**

FERIA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE

AREATZA 19-22 ARENA

*Oinez eta bizikletaz segurtasunez ibiltzea*  
*Camina y pedalea con seguridad*



# Bilbao

UDALA  
AYUNTAMIENTO

## BABESLEAK | PATROCINADORES



## LAGUNTZAILEAK | COLABORADORES



## KOMUNIKABIDEAK | MEDIOS DE COMUNICACIÓN

